

ERLANTZ FURUNDARENA AGIRRE

D Maila | Bertsoa | aipamen saria

Erlantz naiz, 13 urte ditut eta Beasaingo Ikastolan ikasten dut. Zaletasun ugari ditut, natura, kultura, lagunak... Bertsotarako gaia aukeratzean nik sarri sentitzen dudan egoera eta sentimenduak kontatu nahi nituen, eta harro esaten dut “frikia” naizela. Zuetako beste inor sentitzen ote da horrela?



FRIKIAK

Doinua: Andre txarraren bentajak

Gaztea izatea erraza

dela diote batzuek,

baina buruhauste ta arazo

aski badute gazteek,

taldearen parte izateko

zenbat komeria neskek!

Ta kirolek ezin aldegin

hala nahi duten mutilek.

Astlehena iritsi da eta

berriz berdina entzuten,
asteburuko futbol partida
bakoitza errepasatzen,
munduan hori bakarrik dela
digute sinestarazten,
ikasiko ote dute inoiz
besteak ere ikusten?

Lagun arteko plan guztietan
neska-mutilak aparte,
mutil gehienek kirolarekin
burua erabat bete,
neskek dantza edota musika
gustukoagoa dute,
beste zerbait nahiago dugunoi
atea ixten digute.

Ahalegindu beharko lukete
ingurukoa ikusten,
inguruan dituzten aukerei
babes apur bat ematen,
konturatuko dira akaso,
zeinen zorte txarra duten!
Nik jarraituko dut ezberdina

edo “frikia” izaten.